


Erdara txarra da, tira, bueno, ez dakit...



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Gurasoek ez zekitenez, nik ez nuen euskara etxean jaso. Baina gure familiaren historian euskarak beste katebegi bat gehiago galtzerik nahi ez zutelako, ikastolara eraman ninduten, eta grina biziz saiatu ziren hizkuntzaren hazia nire baitan sakon ereiten. Kontua da ez nuela euskararekin kontakturik izan hiru bat urterekin ikastolan hasi nintzen arte, baina hala ere, harrigarriki azkar, aise, eta ongi ikasi omen nuen, garaian maisu-maistra izandakoek kontatu didatenez. Nonbait, erraieran hezuramitua neukan ordurako euskal identitatea, hainbeste non irudipena dudana euskara nigan lora zedin beharrezko ongarri gisa funtzionatu zuela, hitzei nire mihirainoko bidean berezko manera batez lagunduz.

Eskertuta nago, noski. Eta ez euskara eskaini izate hutsagatik, baizik eta horrekin batera eman zizkidatelako hizkuntzaren errealitatea interpretatzeko gako politikoak, eta horiei eskerrak eskuratu nuelako, neurri handi batean bederen, erdararen nagusitasun erabatekoan euskararen hautua egiteko ume batek behar duen motibazioa, espainolaren inertziak eraman ez zaitzan egin beharreko ahaleginari esanahia ematen dion kontzientzia politiko minimoaren zentzuan.

Bai, gurea herri menderatua dela haurrei ahoan bilorik gabe adierazten zitzaien garaietakoa naiz, Euskal Herriaren (eta hizkuntzaren) gatazka, herri zapaldu baten testuinguruan kokatzen zenekoa. Eta eskerrak, 50 urte berantago sortu izan banintz, oso bestelakoa zatekeelako euskararen testuinguru soziopolitikoaz helaraziko zitzaidan diskurtsoa, eta oso diferentea, seguruenik, ondorioa.

Ez zitzaidakeen esango, esaterako, gurea herri menderatua dela, baizik eta gizarte anitza. Eta egiturazko menderakuntza politikoa ukaturik, noski, ezin izango zitzaidan horren arabera azaldu hizkuntza espainola eta frantsesa hemen existitzearen arrazoia; ezta aitortu ere, hizkuntza horiek hemen inposatuak direla kontsideraturik, hizkuntza horien presentzia hutsa dela hemen euskararen biziraupenerako mehatxu. Egun, ekidin beharreko desoreka batzuegatik ez balitz, batzuentzat eleantzasun zerutiar bilakatua litzateke bat-batean zapalkuntza linguistikoa, kolonizazioa eta asimilazioa sentsibilitate diferenteen arteko elkarbizitza bihurtu zaigun magia berekin. Gizarte plural eta modernoan ezaugarri desiragarri, Yupiren munduetan bizi garela sinesteko bultzatu eta sustatu beharrekoa.

Bada, pairatu dugun inboluzio ideologikoa ikusita, pribilegioa da niretzat Eus-

kal Herriko errealitateaz hain kontakizun gordina baina zorrotza jaso izana, ttipi-ttipitak jaso ere. Nire kasuan bederen, lezio hauxe dagoelako euskarari hain irmoki heldu izanaren motibazioaren oinarrian: ez nintzela espainola, espainolek bakarrik egin behar zutela espainolez, eta espainola ez zela hemen ona, euskara desagertaraztearen helburuarekin ezarria baitzen.

Heziketa askeari buruz eskaintzen ditudan hitzaldietan ikusi ohi dudana, nabarmena da epelkeria politiko horrek euskal helduengan sortu duen noraeza eta absurdua, gaztetxoek hizkuntza ohituretan eragiteko orduan.

Zeren, begira: nahi dugu euskaraz egin dezaten -eta ez erdaraz-, baina mugarik ezarri gabe nahi dugu erdaren erabilera murriztu; hizkuntzak ez direlako berez txarrak, baina min ematen digu haurrak espainolez edo frantsesez entzuteak; eta ez diegu hala ere min horren arrazoia azaltzen, hori politika litzatekeelako, eta haurrak politikatik at utzi behar baitira, badakizue; baina arrazoi politikorik gabe, zer argudio egon liteke espainolaren eta frantsesaren kontra? Baina ez, ez, gu ez gaude kontra, hizkuntza guziak dira aberasgarriak, baita hemengo erdarak ere, hori bai, euskara den artean hobetsita...

Eta orduan, galdera: nola egin genezake?

Alo, barkatu? Mirariak Lourdesen. ●